

## Bezperatik hasita, sei egunetan San Antonio jaiak Ereñotzun

■ Bihar hasiko dira festak etxefero eta poteo herrikoiarekin ■ Egitaraua inter-  
neten dago [www.geocities.com/einotzu](http://www.geocities.com/einotzu) helbidean.



Ereñotzuko auzotarrak kultur asteko sagardo probaketan.

AURTENGO San Antonio jaiak bihar hasiko dira Ereñotzun. Dagoeneko mus txapelketa jokatu da eta pelotako zenbait partidu ere bai. Musean aurtengo txapeldun Patxi Txilibita eta Inaxio Bentaxuri gelditu dira.

### SEI EGUNETAN

Sanjoanak berak baino ere luzeagoak izango dira aurtengo San Antonioak: asteartetik igandera artekoak. Inguruko lehenengotako festak izaki jende asko espero dute antolatzailerak.

Aurtengo nobedadeetako bat festetarako Txilibita taberna irekiko dutela da; beraz Irrintzi eta biak egongo dira zabalik Ereñotzun, txoznekin batera. □

### EGITARAUA

#### EKAINAK 12 ASTEARTEA

15:30etan: Txiritako ikasleen emanaldi berezia. Eskolan.  
19:00etan: Meza.  
20:00etan: Festen hasiera.

#### EKAINAK 13 ASTEAZKENA

07:00etan: Meza.  
10:00etan: Trikitilariak.  
10:00etan hasita: Bola jokoa.  
10:30etan: Meza Nagusia.  
12:00etan: Motozerraz egurra lantzen.  
Ondoren: I. Lazkano eta A. Arzallus bertsolariak.  
18:00etan: Kale antzerkia.  
Ondoren: Bertsolariak.  
20:00etan: Epelde eta Larrañagarekin erromeria.

#### EKAINAK 14 OSTEGUNA

11:30etan Irubidetan: Bola.  
Ondoren: I. Zelaia eta U. Agirre bertsolariak.  
17:00etan Ugaldetxon: Pelota txapelketako finalak  
Ondoren: Bertsolariak.  
19:00etan: toka.  
20:00etan: Xabier, Jon Mari Ohiana eta Ikerrekin erromeria.

#### EKAINAK 15 OSTIRALA

20:15etan: Kantuz eta Ozenkiren kantaldia. Elizan.  
23:00etan: Izotzekin dantzaldia.  
00:30etan: Preso, errefuxatu eta deportatuei omenaldia.  
Ondoren: Izotz.

#### EKAINAK 16 LARUNBATA

10:00etan hasita: Bola eta toka.

17:30etan: Haur jaialdia.

Ondoren: Txokolatada.

23:00etan: Morauren kontzertua.

00:00etan: Etxakiten kontzertua.

#### EKAINAK 17 IGANDEA

08:30etan: Txistulariekin diana auzoan barrena.

10:00etan: Trikitilariak.

10:30etan: Meza nagusia.

11:30etan: Sagardo probaketa.

12:00etan: Txarlararen dantzaldia.

13:00etan: A. Mendiluze eta J. Sorozabal bertsolariak Ur-Mian.

18:15etan: Bertso jaialdia: Maia, Irazu, J. Agirre, Sorozabal, Mendiluze eta Zerain.

Ondoren: Errifaren zozketa.

20:00etan: Etxabe anaiekin erromeria.

00:00etan: Jaien bukaera.

### HERNANI INSTITUTUA

## Eskalada, piragua eta sukaldaritza ikastaroak ikasleentzat

■ Eskalada ikastaroa bukatu da. Sukaldean eta piraguismoan oraindik ari dira.



Ikasleak Peña Otaño sukaldean usai goxoak zabaltzen.

BATXILERGOKO lehen maila gainditu duten ikasleak ekaina ederra ari dira pasatzen. Xanti Gorrotxarekin eskaladaren aritu dira zenbait lehengo

astea arte; piraguan dabiltzanakin ere badira eta beste zenbait bihar bukatuko du Ander Gomezek emandako sukaldaritza ikastaroa. □

## Udako Euskal Unibertsitatera joateko diru laguntzak

■ Hernaniko Udalak diru laguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitatera joango diren ikasle hernaniarrei. Eskaria ekainaren 15a baino lehen egin behar da erregistroan edo euskara zerbitzuan. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: karnetaren fotokopia, langabetu edo ikasle txartelaren fotokopia, matrikula ordainagiriaren fotokopia eta kontu korronteko 20 digituak. Informaziorako 943 337000 (euskara zerbitua). □

## Umeen tanborradarako jantziak behar dira

■ Neskenak eta mutilenak behar dira ■ Utzi edo alki-latu nahi dituenak Sta Barbarara deitu: 943-552763

SANTA Barbara elkarteak haurrentzako tanborrada antolatzen du Sanjoanetan. Ume koadrila ari da astean hirutan entsaiok egiten ere. Baina, tanborrada egunean ume batzuk

atera gabe gelditu litezke; zergatik-eta, jantzirik ez daukate-lako. Tanborradaren antolatzailerak jantziak eduki eta behar ez dituen jendeari alokatu edo uzteko eskatu diete.

## Ezkontzaz kanpoko bikoteen araudi berria herritarren eskura dago udaletxean, erreklamazio eta proposamenak egiteko

MAIATZAREN 21eko plenan onartuta, ezkontzaz kanpoko bikoteen araudia aldatu du udalak. Orain 30 eguneko epea dago (iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bi-

haramunetik kontaktzen hasita) araudi berriari egokiak irizten diren erreklamazio eta proposamenak egiteko. Araudi berria ikusi nahi duena udaletik bertatik pasa, eta eskatu. □



mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak

Tel. 649 846 422  
HERNANI

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurrarena  
Etxegoien

Kardaberaz 40 -Behea  
Tel. 943 33 24 40  
Faxa 943 556602  
Mobila 610 29 27 01  
20120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA

FISKALA

KONTABLEA



Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI  
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

GESTORIA  
ZULAIKA  
ASESORIA

Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxa 943 55 11 30

OSINAGAKO JAIAK

## Auzoko argazki zaharren erakusketa "exito tolala" izan da

■ Hala zion antolatzaileetako batek ■ Herri bazkarian jende asko bildu zen.



Herri bazkariak Harriatsuko eskola ia txikitxo eta barrenak ondo berdinduta utzi zituen.

EGURALDIK gehiegi lagundu gabe, baina, giro ederrean pasa dira aurten ere Osinagako jaiak. Urteroko ekitaldiez gain, jai batzordeak auzoko argazki zaharren erakusketa jartzea pentsatu zuen, eta baita auzotarrek ondo hartu ere. Argazki politik asko dira: *osiñar* bat soldaduskan bandera *juratzen*, eskuan fusila duela, auzoko emakumeen bazkaria Harriatsun, sagardoazale

bat asto gainean, *Pantxo Villaren* pare.... Osinagako historiaren kronika grafiko kurioa eta interesgarria.

### PELOTA ETA MUSA

Urtero jokatzen dira Osinaga pelota eta mus txapelketa. Pelotan, aurten, gazteak bakarrik izan dira. Irabazleak: Imanol eta Iñaki Lekuona; bigarren, Xabi Errazkin eta Aritz Arregi. Musean, berriz,

Simon Goikoetxea eta Joseba Maizkurreta izan dira aurten go txapelkunak. Bigarren, Mujika aita-seeak.

Atzo, *Rafari* eta *Txuriari* lore eskaintza eginez hasi zuten eguna. Herri bazkariaren ondoren, auzokoan arteko jokoa. Hori dena bertsolariak eta trikitilariak girotuta: Peñagari-kano eta Telleria bertsoan eta Xapre eta Furri soinu jotzen. Datorren urtean berriz. □

## 'Andrekaleko' jaiak antolatzeko bilera Biterin, datorren ostegunean

■ Kaxko elkarteak deitu du ■ 20:00etan da.

'KAXKO' auzo elkarteak Kardaberaz kaleko jai antolatzeko bilera deitu du. *Andrekaleko* jaiak Karmenetan egiten da, uztailearen 16an. Jai hau aspaldian hila egon da, baina, orain hiru urte martxan jarri eta ondo atera denez, hirugarren

urtean zer antolatu ikusteko bilduko dira ostegunean.

Iaz, *Andrekalean* garai batean izaten zen usadio zaharri ertsiz, mus eta tute txapelketak antolatu zituzten. Eta 16 bikote kale erdian kartetan jokatzen jarri ere bai.

## Bertso eskolak bertso udalekuak antolatu ditu Goizuetan

■ Abuztuaren 20tik 26ra izango dira, Axerra bordan ■ Izena emateko 657-707409 telefonora deitu

HERNANIKO bertso eskolak bertso udalekuak egingo ditu. Esperientzia ez da erabat berria. Lehen ere, Aste Santuetan umeekin txapelketarako *entrenamendu* astea antolatu izan du. Eta umeek, bertsoan aritu ez ezik, gozatu ere egiten dute. Udalekuena bezalako esperientziak talde giroa sortze-

ko aproposak dira eta bertso eskolan hori ezinbestekoa da.

### GURASOEKIN BILERA

Bertso eskolako arduradunek ininteresatuta dauden umeen gurasoekin bilera egingo dute eman beharreko argibideak emateko. Bilera datorren ostiralean da, Biterin, 20:00etan

### ■ PELOTA HERRI ARTEKOA

## Hernanik 1-2 irabazi du Lasarten

■ Larunbatean Lasarten jokatutako Hernanik final laurdenetako lehen hiru partiduak. Kadeteek eta helduek irabazi egin zuten. Eta, pronostikoen kontra, Jon Zaballak eta Yuberok galdu. Itzulerako partiduak datorren asteburuan jokatuko dituzte, kiroldegiko frontoian.

## Peña Otañon Barrikotea ostiralean

■ Peña Otaño elkarteak ardo barrikotea egingo du datorren ostiralean. Afaltzera joateko ez dago bazkide izan beharrik, irekia da. Hori bai, asteazkenerako izena eman behar da. Ardoa *El Coto* bodegako da, Goiko Ardoak emana. Afaria 20:30etan da.

BERTSOLARITZA

## Banatu dira 'Joxe Legarreta' bertso paper sariak

■ Jon Martinek irabazi du helduetan; bigarren Nikolas Zendoia izan da.



Jon bertso irabazleak kantatzen eta Mila paperetik segika.

UR-MIA elkarteak banatu zituzten atzo Joxe Legarreta bertso paper lehiaketako sariak. Sariak Jon Martin eta Nikolas Zendoia helduetan, Irati Goikoetxea gazteetan eta

Aitor Munduate Gaztetxoetan. Aurkezle Mila Apezetxea alkatordea izan zen. Sari banaketaren ostean *luntxa* egin zuten bertsoak entzuteratu ingurututako guztiek. □

## Saharari buruzko erakusketa dago Biterin

■ Aste gutxi barru errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren Saharako umeak izango ditugu Hernanin. Iaz bezala, hemengo familietan pasako dute udara. Beren bizimodua ezagutzeko argazki erakusketa dago Biterin hilaren 20 arte. □

### HERIOTZAK

Sor Maria Pilar Urdangarin Galparsoro  
Ekainaren 1ean hil zen 76 urte zituela

Feliciana Alberdi Arregi  
Larunbatean hil zen 85 urte zituela

Justi Zapiain Aranburu  
Ostiralean hil zen 70 urte zituela  
Hileta elizkizuna gaur 19:00etan Juan Bataiatzailea Parrokian.

Antonio Polaina Parras  
Larunbatean hil zen 80 urte zituela  
Hileta elizkizuna, gaur, zazpietan, Floridako Parrokian

### IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40etan: M<sup>a</sup> Jesus Jauregi sendagile naturistarekin kolesterolari buruz. 12:00etan: Maider Ansa, Haur Kantari Txapelketako garailea, kantuan eta hizketan 12:20etan: Ardi Beltzaren kontrako operazioaren ondorengo egoera 12:40etan: Luis Mari Zalduak Hernaiko bazterren berri.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:  
943 550093  
☎ Udaltzaingoa:  
943 333288  
☎ DYA:  
943 464622  
☎ Anbulatorioa:  
943 557750  
☎ Jokalari anonimoak  
943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Bulnes Etxeberri  
☎ 943 557738  
☎ Gaez: Bulnes Etxeberri  
☎ 943 557738

#### ☎ ASTEARTEA

☎ Egunez: Irigoien Elkano 2  
☎ 943 552087

☎ Gaez: Irigoien Elkano 2  
☎ 943 552087

#### ☎ ASTEAZKENA

☎ Egunez: Correa Antziola 44  
☎ 943 551933  
☎ Gaez: Correa Antziola 44  
☎ 943 551933

## Kronika debalde izateko laguntza

Kronika laguntzeko kanpaina.  
Urtean 5.000 Pta.